

AURKIBIDEA

Abenduaren 25ean, JAUNAREN JAIOTZA	4
Abenduaren 28an, FAMILIA SANTUA	21
Urtarrilaren 1ean, JAINKOAREN AMA MARIA.....	29
Urtarrilaren 4an, EGUBERRI ONDORENGO II. IGANDEA	37
Urtarrilaren 6an, JAUNAREN AGERKUNDEA	45
Urtarrilaren 11n, JAUNAREN BATAIOA.....	54

Abenduaren 25ean **JAUNAREN JAIOTZA**

Agurra

Gu salbatzeko jaio den Kristogan agertu zaigun
Jainko gure Aitaren bakea eta maitasuna zuekin.

Sarrerako Oharpena

Pozik gaude gaur: Jainkoa-gurekin da, gure arteko egin da, gu Bere
arteko egiteko.

Bukaerara iristen ari zaigu gure Elizbarrutiurrenaren eta Eliza
Osoaren Jubileu urtean «ITXAROPENEAN ERROMES» urtea.

Kristo da gure itxaropena eta gu argitzen gaituen zuzentasun eguzkia,
herri guztiei bidea agertzera etorria. Onar dezagun, ospa dezagun,
gora dezagun!

Damu-otoitza

Jaunak agertu digu bere erruki handia Semea gure artera bidaltzean.
Dohain miresgarri hori eskertuz aitor dezagun bekatari garela.

—Jesus Jauna, Mariagandik jaio eta gure senide egin zinen
Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure ahuleriak ezagutzen eta maitasunez ulertzen
dituzun Gizonaren Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu guztiokin familia bat bera egiten duzun Aitaren
Lehen Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik,
eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Aintza

Kanta dezagun pozez beterik Eliza osoarekin, aingeruek gau santu hartan Betleemen abestu zuten bezala: «Aintza zeruetan».

Otoitza

(Bezpera-arratsaldeko Meza)

Salbamenaren esperantza pozgarri
urtero gure bihotzean suspertzen duzun Jainkoa,
egizu, zure Seme bakarra gu salbatzera datorrenean
pozik onartzen dugun bezala,
gu epaitzera etorriko denean ere
har dezagula uste osoz.
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

(Gauerdiko Meza)

Egiazko argiaren distiraz argitu duzu, Jauna, gau santu hau; egizu,
lur honetan gertakari honen argi distiratsua ikusi dugunok
goza dezagula zeruan haren aintzaren ederra.
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

(Goizeko Meza)

Jainko ahalguztiduna,
haragi egin den zure Hitzaren argi berriak bete gaitu;
egizu, gure bihotzetan argi egiten duen fedeak
distira dezala gure egintzetan ere.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

(Eguneko Meza)

Oi Jainko, era miragarrian moldatu duzu giza duintasuna
eta era miragarriagoan eraberritu;
egizu, gizatasunean gurekin bat egin duen zure Semeak
bat egin gaitzala berekin jainkotasunean.
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Gizaldietan isilik egondako Hitza, Profetek fedez itxarondakoa,
Maria Birjinagandik jaio zaigun Kristo da. Bera da artzainei agertua;
Bera, herri guztiei adierazia; Bera Elizak pozkarioz altxor bezala
gorde eta hots egiten duen salbamenezko Hitz bizia. Entzun dezagun
arretaz.

*Gauerdiko, Goizeko eta Eguneko Meza ospatzen denean, Irakurgaiak har daitezke
hiru Mezatarako emandakoen artetik. Bezpera arratsaldeko Meza ospatzean,
bertan egongo den jendeak hori izango badu Eguberri-Meza bakarra, egokiago
gerta daiteke 25erako ematen diren hiru ebanjelioetako bat hartzea. Hemen, lau
meza horietako testuak eskaintzen ditugu.*

(BEZPERA-ARRATSALDEKO MEZA)

Lehenengo irakurgaia (Is 62, 1-5)

Isaias Profetaren liburutik

Sionen maitasunez ez naiz isilduko, Jerusalemen maitasunez ez naiz
geldi egongo; haren garaipena goiz-argia bezala agertu arte, haren
salbamenak zuziak bezala distiratu arte.

Eta ikusiko dute herriek zure garaipena, errege guztiek zure ospea;
izen berria ezarriko dizute, Jaunak berak emana. Koroa eder izango
zara Jaunaren eskuan, errege-diadema zeure Jainkoaren eskuan.

Ez dizute berriz deituko «Zapuztua», ezta zure lurraldeari ere
«Hondatua». «Ene atsegina» deituko dizute zuri, eta «Emazte» zure

lurraldeari. Atsegin izango baitu zugan Jaunak eta emaztetzat hartuko du zure lurraldea.

Mutila neskatxarekin ezkontzen den bezala, hala ezkonduko da zurekin zure eraikitzailea; senarra emaztearekin poztan den bezala, hala poztuko da zurekin Jainkoa.

Erantzun-salmoa (*Sal* 89 [88], 4-5. 16-17. 27 eta 29)

Jau-na, zu-re mai-ta-su-na a-bes-tu-ko dut

be-ti-ren be-ti.

- ℣. Ituna egin dut neure hautatuarekin,
David neure morroiari zin eginez:
«Sendo ezarriko dut betiko zure errege-jatorria,
menderen mende eraikiko zure errege-aulkia». ℟.
- ℣. Zorionekoa, Zu pozik govesten dakien en herria!
Zure argitan ibiliko da, Jauna;
zure izenean da egunero alaitzen,
zure salbamen-egintzaz harrotzen. ℟.
- ℣. Hark dei egingo dit: «Zu nire aita,
nire Jainkoa, nire harkaitz salbatzailea».
Beti gordeko diot neure maitasuna,
sendo eutsiko harekin dudan itunari. ℟.

Bigarren irakurgaia (Eg 13, 16-17. 22-25)

Apostoluen Eginak liburutik

Paulo Pisidiako Antiokiara iritsi zen eta, hango sinagogan sartuz, zutitu eta isiltzeko keinu eginda, hitz egin zien: «Israeldarrok eta Israelen Jainkoa gurtzen duzuen guztiok, entzun: Israel herri honen Jainkoak gure aurrekoak aukeratu zituen eta herria ugaritu zuen, Egipton arrotz zirelarik, eta bere besoaren indar handiaz atera zituen handik.

Gero, David eman zien errege, honetaz aitormen hau eginez: "Aurkitu dut David, Jeseren semea, nire gogoko gizona, nik nahi guztia beteko duena".

Hitzemana zuenez, honen hazitik atera zion Jainkoak Israeli Salbatzailea: Jesus. Hau etorri baino lehen, Joan Bataiatzaileak bihotz-berritzeko bataioa hots egin zion Israel osoari. Eta bere bizitza bukatzera zihoanean, honela zioen Joanek: "Ez naiz ni zuek uste duzuen; badator nire ondoren beste bat, eta ni ez naiz inor haren oinetakoak askatzeko ere"».

Aleluia



∇. Bihar ezereztua izango da lurreko gaiztakeria; eta munduaren Salbatzailea izango da gure erregea. R.

Ebanjelioa (Mt 1, 1-25 edota, laburrago, Mt 1, 18-25)

(GAUERDIKO MEZA)

Lehenengo irakurgaia (*Is* 9, 2-4. 6-7)

Isaias Profetaren liburutik

Ilunpean zebilen herriak argi handia ikusi zuen; herio-itzalean bizi zirenei distira egin zien argiak. Gehitu zenuen poza eta handitu atsegina; pozetan dabilta zure aurrean, uzta biltzean izaten den pozez, harrapakinak banatzean izaten den atseginez. Apurtu baituzu lepoan zeramaten uztarri astuna, zapaltzailearen aginte-makila, Madiango gudarostea apurtu zenuen bezalaxe. Suak erreko ditu eta erraustuko lurra danbadaka zapaltzen zuten gudari-botak eta odolez zikinduriko jantziak.

Haurra jaio zaigu, semea eman zaigu; hari eman zaio aginpidea, eta haren izena Kontseilari harrigarri, Jainko indartsu, Aita betiko, Errege bake-emaila. Handia izango da haren aginpidea, amairik gabekoa bakea Daviden tronuan eta haren erreinuan; sendo egingo da eta zuzenbidean eta justizian oinarrituko, gaurdanik eta betidaino. Jaun ahalguztidunaren maiteminak egingo du hau.

Erantzun-salmoa (*Sal* 96 [95], 1-2a. 2b-3. 11-12a. 12b-13)

Gaur ja - io zai - gu Sal - ba-tzai - le - a Kris - to, gu-re

Jaun e - ta Ja - be - a

- ✧. Kanta Jaunari kantu ⁻¹berria,
kanta Jaunari, lur osoa,
kanta Jaunari, bedeinkatu haren izena! ✧.



- Ț. Hots egin egunez egun salbatzaile dela.
 Zabaldu haren ospea nazioetan,
 haren mirariak herri guztietan. Ț.
- Ț. Poztu bedi zerua, alaitu lurra,
 egin beza orro itsasoak eta bertako **guzti**ak,
 egin festa landa zabalak eta bertan den **guzti**ak. Ț.
- Ț. Egin poz-oihu, basoko zuhaitz **guzti**ok,
 Jaunaren aurrean, badator eta,
 badator lurra epaitzera. ‘
 Justiziaz epaituko du **mund**ua
 eta leialtasunez **herri**ak. Ț.

Bigarren irakurgaia (Tt 2, 11-14)

San Paulo Apostoluak Titori egindako gutunetik

Anaia maitea: Agertu da Jainkoaren onginahia, gizon-emakume guztien salbamenerako. Salbamen honek Jainkorik gabeko bizitzari eta munduko grina txarrei uko egiten irakasten digu, eta neurriz, zuzentasunez eta jainkozaletasunez mundu honetan bizitzen, gure itxaropen zoriotsua noiz beteko zain, Jesu Kristo Jainko handia eta gure salbatzailea aintzaz beterik noiz agertuko zain. Hark bere burua eman zuen gugatik, gu gaiztakeria guztietatik askatu eta garbi egiteko, haren herri berezi izan gaitezen, on egin zale.

Aleluia (Lk 2, 10-11)



∇. Poz handia sortuko duen **berri** ona
iragartzen **di**zuet:
Salbatzailea, Mesias Jauna, jaio **zai**gu gaur! ∇.

Ebanjelioa (Lk 2, 1-14)

(GOIZEKO MEZA)

Lehenengo irakurgaia (Is 62, 11-12)

Isaias Profetaren liburutik

Hona zer adierazten duen Jaunak lurraren azken mugetaraino: «Esan Sion hiriarri: Hara, badator zure salbatzailea; berekin dakar garaipen-agiria, berak askaturiko herria. "Herri santu" deituko diote, "Jaunak askatua". Eta zuri, Jerusalem, "Hiri desiratu" deituko dizute, "Zapuztu gabeko hiri"».

Erantzun-salmoa (Sal 97 [96], 1 eta 6. 11-12)





℣. Errege da Jauna! Alai bedi lurra,
poztu bitez uharte ugariak!
Zeruek haren salbamen-egintza iragartzen dute,
herri guztiek haren ospea ikusten. ℟.

℣. Argia sortzen da zintzoarentzat,
poza bihotz zuzenekoentzat.
Poztu zaitezte Jaunarekin, zintzook,
goretsazue, haren santutasuna gogoratuz. ℟.

Bigarren irakurgaia (Tt 3, 4-7)

San Paulo Apostoluak Titori egindako gutunetik

Anaia maitea: Jainko gure salbatzailearen bihotz ona eta onginahia agertu denean, salbatu egin gaitu; ez guk egindako zuzenbidezko egintzengatik, bere errukiagatik baizik, jaiotza berria ematen duen garbikuntzaz eta Espiritu Santuak eragiten duen berrikuntzaz. Espiritu hori oparo isuri digu Jainkoak, Jesu Kristo gure salbatzailearen bitartez. Horrela, onginahi hutsez Jainkoak zuzen egin gaituelarik, itxaro dugun betiko biziaren oinordeko egin gara.

Aleluia (Lk 2, 14)



A - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia, a - le-lu - ia.



℣. Aintza zeruetan Jainkoari
eta bakea lurrean haren gogoko gizon-emakumeei. ℟.

Ebanjelioa (*Lk 2, 15-20*)

(EGUNEKO MEZA)

Lehenengo irakurgaia (*Is 52, 7-10*)

Isaias Profetaren liburutik

Bai ederrak direla mendi gainetan albistariaren oinak! Bakea aldarrikatzen du, zorionaren berri ona ematen eta salbamena iragartzen! Sioni diotso: «Zure Jainkoa errege da!» Entzun zeure zaintzaileen oihua! Oihuka ari dira, poz-irrintzika, guztiak batera, beren begiz ikusten baitute Jauna Sionera itzultzen.

Ekin poz-oihuka guztiok batera, Jerusalemgo horma eroriok, Jaunak bere herria kontsolatu baitu eta askatu du Jerusalem. Herri guztien aurrean erakutsi du Jaunak bere beso santuaren indarra, eta munduko bazter guztiek ikusiko dute gure Jainkoaren salbamena.

Erantzun-salmoa (*Sal 98 [97], 1. 2-3ab. 3c-4. 5-6*)

I - ku - si du - te lur mu - ga de - nek gu - re Jain - ko -

a - gan - di - ko ga - rai - pe - na.

- ℣. Kanta Jaunari kantu **berria**,
egintza harrigarriak egin **baititu**;
garaipena eman dio bere **esku**inak,
bere beso **santu**ak. ℟.



- Ț. Bere garaipena ezagutarazi **du** Jaunak,
 bere salbamen-egintza agertu nazioen **aur**rean.
 Ez da ahaztu bere mait**ta**sunaz,
 Israel herriari dion leial**ta**sunaz. Ț.
- Ț. Munduko bazter guztiek ikusi**si** dute
 gure Jainkoaren gara**rai**pena.
 Egin irrintzi Jaunari, lur **o**soa,
 egin poz-oihu eta kantu, jo **soi**nua. Ț.
- Ț. Ospatu Jauna **zi**taraz,
 zitaraz eta kant**tu**-hotsez,
 turutaz eta **a**dar-hotsez;
 egin irrintzi errege den **Ja**unari. Ț.

Bigarren irakurgaia (Heb 1, 1-6)

Hebrearrei egindako gutunetik

Askotan eta era askotara hitz egin zien antzina Jainkoak profeten bidez gure arbasoei; azkenak diren egun hauetan, berriz, bere Semearen bidez hitz egin digu. Seme hau egin zuen gauza guztien oinordeko, egin ere honen bidez egin baitzuen mundua.

Seme hau da Jainkoaren aintzaren distira eta Jainkoaren izatearen irudia. Honek eusten die gauza guztiei bere hitz indartsuaz. Eta, bekatuen garbikuntza egin ondoren, Jainko handiaren eskuinaldean eseri zen zero-goienetan, aingeruak baino gorago jarria, ondareztat jaso zuen izena ere haiena baino goragokoa denez gero.

Aleluia



- V. Argitu du egun santua;
zatozte, herriok, gurtu ezazue Jauna;
argi handia jaitsi da gaur lurrrera. *℟.*

Ebanjelioa (*Jn 1, 1-18 edota, laburrago, Jn 1, 1-5. 9-14*)

Homiliarako argibideak

0. BAI EDERRAK ALBISTARIAREN OINAK!

— Berriro Eguberria dator gugana, urteroko legez Jaunaren Jaiotza ospatzeko prestatu gara lau asteko denbora laburrez. Behar bada motz samarra gertatu zaigu denboraldi hau. Konturatzerako Jauna ate-joka duzu zure etxean!

— Baina, guk etxeko lanak fundamentuz egiteko astirik hartu ez badugu ere, Jauna guregana dator. Janaren leialtasuna gauza guztietan gainetik dago. Jaunak hitza bete du, are gehiago, Hitza haragi egin da.

— Fededuna beti da bilatzaile amorratua. Baina, badugu zenbaitetan agertzen zaigun tentazio bat: bila gabiltza eta, aurrean dugun Jaunak bere etxeko atea irekitzen digunean, ez gara aurrea pasatzeko gai izaten. Bilatzen duenak aurkitzen du eta aurkitzen duenean, fededunak, kristauak badaki Jesusekin topo eginez gero, honek betetasunera eramango gaituela.

— 800 urte aurretik Isaias profetak egin zuen aldarria guk gaur oihukatzen dugu: “bai ederrak direla albistariaren oinak!”. Sioni

aldarrikatzen zioen oihuak guregan gaur ikusi eta ukitzeko moduko estanpa dakarkigu Jaunaren Jaiotzak.

1. ERA ASKOTARA

— Hebrearrek mendez-mende salbatuko zituen Mesiasen zain zeuden. Aintzinetik profeten ahotsa entzuten zuten eta guk gaur ospatzen dugun festa handiaren eguna iritsi da.

— Zenbaitek zain jarraitzen du. Gure esperantza bete da, iritsi da bere betera.

— Fededun izan ala ez, badira Eguberri garai honetan poza sentitzeko gai ez direnak. Bizi dituzten sentipen sakonak han dira mingarriak, sentitzen duten hutsuneak ez du inork edo ezerk betetzen. Eta, tamalez, askok ez dute gogoko izaten Eguberria. Gizartea hipokresia denboraldi batean sartzen dela diote eta zoriontsu izateko aldarria derrigortua dela salatzen dute.

— Eguberri garai honetan denok izaten dugu gure etxeetan aulki hutsaren mina, nostalgia.

— Baina, Jainkoak era askotara hitz egiten digu oraindik. Eguberrian Jauna non eta nola jaiotzen den ikusteko eta barnetik bizitzeko gai bagara, ikusiko dugu Jainkoa azkenekoen alde jartzen dela jabetuko gara, gauaren isilean eta hotz krudel horretan Hitza haragi egin zela, Jainkoak ondo asko dakiela gure samin eta sufrimenduen berri.

2. ETA HITZA HARAGI EGIN ZEN

— Ahuldade handiengan egin da Haragi Hitza. Ezinbestekoa izango da fededunontzat Jauna jaio zen tokira itzultzea eta ahulenengan agertzen dela Jainkoaren indar ezkutua.

— Onar dezagun Belengo estalpea ez dela guk etxeetan pozez janzen dugun bezain dotorea. Estalpea babes bila dabiltzanen une bateko etxea da eta hortxe jaio da gure Jauna aterperik gabekoekin bat egiteko, etxerik ez dutenekin bat eginez.

— Kristauak ezin du ahaztu, ez du ahaztu behar gure Jauna, guztiz ahaltsua zen Jaunak txikien bidea aukeratu zuela, babesik gabekoen bidea hartu zuela.

— Hitza haragi egin zen, baina giza haragi ahula, hauskorra, zaugarria. Jainko Onak gure ahuleziarekin bat egin da, gizaki egin da, giza haragi ahula. Zorionak eta Eguberri On!

Jainkoaren herriaren otoitza

Fedez beterik bat egin dezagun, senideok, mundu zabaleko kristau guztiakin eta egin dezagun otoitz Kristoren jaiotzaz hasitako salbamena lurraren bazter guztietara iritsi dadin:

Erantzuna: R. **Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.**



— Eguberriaren misterioa alaitasunez ospatzen ari diren Elizaren seme-alaba guztiak jaio daitezela justiziazko, maitasunezko eta bakezko bizi berri batera. Egigun otoitz. R̃.

— Gizaki guztiak Kristo, Jauna, ezagutzera hel daitezen eta Bere inguruan betiko bil daitezen, galduta zeudenak bilatzera eta salbatzera etorria denez. Egigun otoitz. R̃.

— Gure giza izatea hartu zuen Jainkoaren Semea izan dadila negar egiten dutenentzat poz, gaixoentzat osasun, hilzorian dauden babes eta egun hauetan bakarrik eta triste daudenentzat goiko indar. Egigun otoitz. R̃.

— Jai hauetan elkartzen diren gure familietan haz dadin, Jesus, Jainkoaren Seme eta gure Salbatzailearenganako fedea. Egigun otoitz. R̃.

Jesu Kristo Jauna, Eguberriaren misterioaren bidez giza familiaren nekeak eta mugak zeure egin dituzu; entzun Zure Elizaren otoitza eta egizu sinets dezagula Aita eta Zu ezagutzeak dakarrela guztiontzat betiko bizia. Errege bizi baitzara gizaldi eta gizaldietan. *R̃x.* Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

(Bezpera-arratsaldeko Meza)

Jauna, zeure Semearen jaiotza ospetsuarekin eman diozu hasiera gure salbamenari; emaiozu zeure herri honi misterio santu hauek maitasunik handienaz ospatzeko grazia. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R.* Amen.

(Gauerdiko Meza)

Izan bekizu atsegin, Jauna, Eguberri-gau santu honetan egiten dizugun oparia; eta gure dohainak sagaratzen dituen harreman santu honen bidez, egin gaitzazu zeure Semearen izaera bereko, harengan bat egin baikaituzu Zeurekin. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̃x.* Amen.

(Goizeko Meza)

Izan bitez, Jauna, gure eskaintzak gaur ospatzen dugun Jesusen jaiotzako misterioaren neurrikoak, zure Semea gizon egina eta, aldi berean, Jainko dena agertu diguzun bezala, lurreko gure dohain hauek eman diezazkigutela jainkozko ondasunak. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̃x.* Amen.

(Eguneko Meza)

Onartu, Jauna, gaurko Eguberri-festaburu honetan,
Zurekin adiskidetzen gaituen oparia,
hau baita gizakiak Zuri eskain diezazukeen
gorespenik bikainena.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̥*. Amen.

Prefazioa: Eguberriako I. Prefazioa. *(Meza-liburua: 472. or.)*

Jaunartze-ondorengo otoitza

(Bezpera-arratsaldeko Meza)

Janari-edari santuak eman dizkiguzu, Jauna, sakramentu honetan;
egizu, indarberri gaitezela zure fededunok
zure Semearen jaiotza ospatuz.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̥*. Amen.

(Gauerdiko Meza)

Pozez gainezka ospatzen dugu, Jainko gure Jauna,
Kristo gure Salbatzailearen jaiotza;
emaguzu santuki bizitzea, harekin bete-betea bat egiteko.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̥*. Amen.

(Goizeko Meza)

Poz handiz ospatu dugu, Jauna, zure Semearen jaiotza;
emaguzu misterio honen muina fedez sakontzea
eta maitasun handi eta emankorrez bizitzea.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̥*. Amen.

(Eguneko Meza)

Jainko errukitsua, gaur jaio den munduaren Salbatzaileak
Jainkoaren seme-alaba bihurtzen gaituen bezala,
egin gaitzala hilezko ere.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̥*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *R̥*. A Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Jainko guztiz onak, bere Semea gizon egitearekin,
uxatu ditu munduko ilunpeak,
eta Maria Birjinagandik jaiotzearekin
argitu [gau] egun santu hau:
uxa ditzala berak zuengandik bekatuaren ilunpeak
eta zuen bihotzak bere graziaren distiraz argitu. *R̥*. Amen.

Kristoren jaiotza salbagarriaren berri
artzainei aingeruen bidez eman zienak
bete dezala bere pozez zuen bihotza
eta egin zaitzatela bere Berri Onaren zabaltzaile. *R̥*. Amen.

Bere Semearen gizon egiteaz
zeru-lurrak bat egin dituenak,
bete zaitzatela bere bakeaz eta gogo onez,
eta eraman zeruko Elizarekin bat egitera. *R̥*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. *R̥*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *R̥*. Eskerrak Jainkoari.

Abenduaren 28an
FAMILIA SANTUA: JESUS, MARIA ETA JOSE

Agurra

Jainkoaren familia egin gaitu Jesusek.
Haren grazia eta bakea zuekin!

Sarrerako Oharpena

Eguberri zortziurrena edo oktaba ospatzen ari garela, Familia Santuaren jaia dugu gaur. Gaur bukatuko dugu JUBILEU URTE santua gure Gotzain Eliza edo Katedralean, arratsaldean izango dugun elizkizunean. Nazaretako familia ospatzeak Jesusen gizon egite apalera gerturatzen gaitu: Mesias giza-elkartera etorri da, giza-familiara. Mesias gu sakonetik berritzera etorri da, gutako bat eginez.

Ospa dezagun Igandeko familia-batzarra: Eukaristia. Bertan ematen zaigu ogi-ardotan geureganatzen den Hitza.

Damu-otoitza

Salbamenaren misterioa ospatzera goaz. Zabal dezagun gure bihotza Jaunaren erruki mugagabera. Eska dezagun barkamena.

—Jesus Jauna, Maria Birjinagandik jaio eta gure senide egina: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, Jose eta Mariaren menpean bizi izan zinena: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, Jainkoaren seme eta alaba izatea lortu diguzuna: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Otoitza

Oi Jainko,
egiazko bizi-eredua eman diguzu Familia Santuagan;
egizu, onbera, izan ditzagula geure familietan ere
haien harreman eta maitasun berberak,
betiereko zoriona izan dezagun zeruetako zure etxean.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena


Familian denak izan behar du maitasun. Errukizko bihotzik eta gertutasunik gabe zaila da familiak sendo irautea. Nazareteko Familia dugu honen guztiaren adibide eta eredu eder.

Lehenengo irakurgaia (Si 3, 3-7. 14-17a [gr. 2-6. 12-14])

Siraken liburutik

Jaunak seme-alaben gainetik ohoratzen du aita, eta amaren aginpidea ezartzen bere umeen gain. Aita ohoratzen duenak bere bekatuak ezabatzen ditu, eta ama goresten duenak ondasunak pilatzen. Aita ohoratzen duenak poza izango du bere seme-alabengan, eta otoitz-egunean entzun egingo dio Jaunak. Aita ohoratzen duena luzaro biziko da, eta ama goresten duenak Jaunari obeditzen dio.

Ene seme, zaindu aita zahartzaroan eta ez eman nahigaberik bizi den artean; burua galtzen hasten bada ere, izan barkabera eta ez gutxietsi bizi den bitartean; aitari emandako laguntza ez da ahaztuko, bekaturen ordain izango duzu. Atsekabealdian gogoan izango zaitu Jaunak.

Erantzun-salmoa (*Sal* 128 [127], 1-2. 3. 4-5)

- ℣. Zorionekoa Jaunari begirune diona
eta haren bideetan dabilena!
Zeure lanaren fruitutik duzu jango,
zoriontsu izango zara eta ongi zaizu joango. ℟.
- ℣. Emaztea mahatsondo emankorraren antzeko
zure etxe barnean;
seme-alabak olibondo-kimuen antzeko
zure mahai inguruan. ℟.
- ℣. Hara nola izango den bedeinkatua ‘
Jaunari begirune diona!
Bedeinka zaitzala Jaunak Siondik,
goza zaitezela Jerusalem zorionaz
zeure bizitzako egun guztietan. ℟.

Bigarren irakurgaia (*Kol* 3, 12-30)

San Paulo Apostoluak Kolosarrei egindako gutunetik

Senideok: Jantzi zaitezte bihotz errukitsuz, onberatasunez, apaltasunez, otzantasunez, pazientziaz, Jainkoaren herri aukeratua, santua eta maitea zaretenez gero. Eramazue ondo elkar eta barkatu bata besteari, inork inoren aurka ezer balu. Jaunak barkatu zizuen bezala, barkatu zuek ere elkarri. Eta horien guztien gainetik, izan maitasuna, hori baita elkartasun betearen lokarria. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzean, bake horretara deituak zaretenez gero gorputz batean, eta izan esker oneko.

Bizi bedi oparo zuengan Kristoren hitza; irakatsi eta aholkatu jakinduria osoz; kantatu Jainkoari bihotzez eta esker onez salmoak, gorazarreak eta kantu inspiratuak. Edozer esaten nahiz egiten duzuela, egizue dena Jesu Kristo Jaunaren izenean, haren bidez Jainko Aitari eskerrak eman.

Emazteok, zaudete zeuen senarren mende, Jaunaren jarraitzaileei dagokien bezala. Senarrok, maita itzazue zeuen emazteak, eta ez izan gogor haiekin. Seme-alabok, egin zeuen gurasoen esana gauza guztietan, hori nahi baitu Jaunak. Gurasook, ez sumindu zeuen seme-alabak, gogogabetu ez daitezen.

Aleluia (Kol 3, 15a. 16)



℣. Kristoren bakeak agindu beza zuen bihotzean;
bizi bedi oparo zuengan Kristoren hitza. ℟.

Ebanjelioa (Mt 2, 13-15. 19-23)

Homiliarako argibideak

0. IHESLARI

— Gaur oroitzen dugun familia, Familia Santua da: Jesus, Jose eta Maria. Familia honen lehen urratsak benetan korapilotsuak izan ziren. Jauna guregana dator, baina mundu honetan larri eta estu dabiltzanekin bat egiten du: Familia Santuak Herodes erregearen beldur ihesi joan behar izan zuen Egiptora.

— Mundua salbatzera etorri den Salbatzailea iheslaria da mundu honetan lehen arnasa hartu zuenetik. Ondo asko ezagutzen du gure Jainkoak ihesi, beldurrez dabiltzanen estualdi eta izuak. Denengana datorkigu, baina hauekin, bereziki, bat egiten du.

— Donostiako gure Elizbarrutiak urtarrilaren 6an, Epifania edo Jaunaren Agerkundean estreinatu genuen Jubileu urtea, gaur amaitzen dugu, gaur itxiko da gure Elizbarrutiaren 75. Urtemugako atea: Donostiako Artzain Onaren Katedralean, Arantzazuko gure Amaren Santutegian eta Loiolako San Ignazioren Basilikan.

— Baina, ez ditugu ixten gure eginkizuna amaitu delako, Jaunaren grazia jaso ondoren, esperantzaren bidea berritzeko asmoz kanpora begira jarri garelako berriro. “Itxaropenak ez du huts egiten”. Merezi izan du elkarrekin egin dugun bidea, egin dezagun elkarrekin aurrean dugun bidea!

1. MIGRATZAILE

— Elizak arreta bereziz jartzen du begia, lana eta bihotza migratzaileengan. Gu harantz noizbait joan baginen sasoi hobeagoa genuenean, orain bueltan datorkigu eta gure misiolariak jarritako Berri Onaren haziaren oparia dakarte askok.

— Oparia fedea da, oparia familia da, oparia kristau elkartea bere ahuldadean aberasten duen gizon-emakumeen gehitzea da. Bizitza berregiteko desioa eta premia dutenengana gure arreta jartzea ezinbestekoa da. Gu ere noizbait etorkin izan ginen, orain migratzaileei gu aberasteko besoak, ateak eta kristau elkartea zabaldu behar diegu. Familia Santua erromes, iheslari eta migratzaile izan ziren moduan.

— Ez dugu zertan mesfidati jokatu behar bizitza berri bat hasi nahian ate-joka datorkigunean. Ez dugu soberan duguna bakarrik eman behar. Ez datoz eske bakarrik. Emateko prest badaude eta

euren lurraldeetan jasotako ebanjelioaren oparia partekatzeko gertu daude, gure harrera onaren zain.

2. FAMILIA

— Jesus familia batean hazi eta hezi zen, etxean jaso zituen lehen besarkada eta laztanak. Familia da lehen eliza, Jaunaren maitasunaren berri jasotzen dugun lehen txokoa.

— Nazareteko familia hartan ikasi zuen Jesusek elkertasunaren oinarritzko baloreak. Egipton eta Nazareten ikasi eta ikusitakoak bihotzean gorde zituen. Ezer gutxi edo batere ez dakigu urte horietaz. Baina, familiako urrats garrantzitsuenak isilean eta istilu handirik gabe iruten dira.

— Eliza Jainkoaren Herria da, denok gara etxekoak, inor ez dago soberan. Frantziskok ozen bota zuen aldarriaren oihartzuna oraindik entzuten da: “Elizan denontzako lekua dago, guztiontzako, guztiontzako!”

— Gure Elizbarrutiak erronka handiak ditu, Eraberrikuntza Pastoral eta Misiolari batean murgilduta gaude. Ez dugu ziurtasunik Jainkoak zer eskatuko digun, baina egin dezagun batera denontzako lekua izango den Eliza, Familia, Etxea.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: egin diezaiogun otoitz Jesu Kristo Jaunari, familia santutzeko giza familia batean bizi nahi izan zuenari:

Erantzuna: R. **Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.**



- Maria eta Joseren etxean familia-bizitza elkarbanatu zuen Jaunak, zaindu dezala bakean kristau-familia guztien elkarbizitza. Egigun otoitz. R.
- Senargai eta emaztegai guztiak, Jainkoaren presentzia sumatuz eta elkarren maitasuna biziz, egoki presta daitezen Ezkontzako Sakramenturako. Egigun otoitz. R.
- Jainkoak familia zatituak argitu eta gogoberotu ditzan. Lana dela eta bereiztuta bizi behar duten senar-emazteak, familia zatituetako kideak, haurrik ez dutelako sufritzen dutenak eta senideren baten heriotza dela eta negarrez daudenak, indartuak gerta daitezen. Egigun otoitz. R.
- Gure familian eta kristau elkartean bakean bizitzen saiatzen garenon alde: gaindi ditzagula ontasunez, ulermenez eta maitasunez izan ditzakegun zailtasun eta konponezinak. Egigun otoitz. R.

Jainko Jauna, gizaldi guztiak baino lehen sortutako zure Semea giza familia baten kide egin zenuen; entzun gure otoitzak eta egizu gurasoek parte izan dezatela zure maitasun ugarian, eta seme-alabak hazi daitezela jakindurian, ulermenean eta grazian zure aurrean eta gizaki guztien aurrean. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Bakezko opari hau Zuri eskaintzean, Jauna,
apal-apal eskatzen dizugu:

Jainkoaren Ama Birjinaren eta Jose santuaren otoitzari esker,
gure familiak bizi daitezela sendo
zure adiskidetasunean eta bakean.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Prefazioa: Eguberritako II. Prefazioa. (*Meza-liburua: 474. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Aita guztiz onbera,
sakramentu honen bidez indarberritu gaituzunok
bizi gaitzezela Familia Santuaren antzera,
lur honetako nekeen ondoren berarekin batean
betiko zoriona irits dezagun.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia (*Liburuxka honetan: 20. or.*)

Urtarrilaren 1ean

JAINKOAREN AMA MARIA SANTUAREN FESTABURUA

Agurra

Errukiaren eta bakearen Jainkoa izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Jainkoaren Ama Maria Santuaren festaburua dugu gaur, Eguberri-zortzigarren honetan. “Jainkoaren Ama” aitortzen dugu Maria, berarengan gizon egin baitzen Jainkoaren Hitza.

Urteko lehen egun honetan Mariaren Seme Jesusi, Bakearen Erregeari, eska diezaiogun iritsi dadila lurreko bazter guztietara bere jaiotzaz munduari ekarri dion egiazko bakea.

Damu-otoitza

Ospakizunaren hasieran eska dezagun bekatuen barkamena, misterio santuak ospatzeko gai izan gaitezen.

✠.Erruki, Jauna. ✠. Bekatu egin dugu-ta.

✠.Agertu guri, Jauna, zeure bihotz ona. ✠. Eta salba gaitzazu.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

✠.Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.

✠.Kristo, erruki. ✠. Kristo, erruki.

✠.Erruki, Jauna. ✠. Erruki, Jauna.

Aintza

Bat egin dezagun zeruko nahiz lurreko senide guztiekin, Jainkoa bihotz-bihotzez goratzeko.

Otoitza

Maria dohatsua birjina izanik ama eginez,
gizadiari salbamen eman diozun Jainkoa,
egizu, laguntzaile ere izan dezagula zure aurrean
beraren bidez lortu baikenuen biziaren sortzailea,
zure Seme Jesu Kristo gure Jauna.
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Biblia, bere osotasunean harturik, Jainkoak bere herriarekin izan duen historia da: maitasun historia, bedeinkapen eta salbamen historia. Horixe entzungo dugu gaur ere: Jaunak gure alde ari da, Jauna gurekin da beti gu salbatzen eta gu bedeinkatzen.

Lehenengo irakurgaia (Zen 6, 22-27)

Zenbakiak liburutik

Honela mintzatu zitzaion Jauna Moisesi: «Esaiezu Aaroni eta haren semeei: Honela bedeinkatuko dituzue israeldarrak: "Bedeinka zaitzala Jaunak eta zaindu. Ager diezazula Jaunak aurpegi argia, eta erruki dadila zutaz. Erakuts diezazula Jaunak aurpegi gozoa, eta eman bakea".

Honela dei egingo diote nire izenari israeldarren alde, eta Nik bedeinkatu egingo ditut».

Erantzun-salmoa (Sal 67 [66]. 2-3. 5. 6 eta 8)



A-ger - tu zu - re bi- hotz o - na. E-man, Zuk, Jau -
na, o - sa - su - na.



- ✠ Erruki bekigu Jainkoa eta bedeinka **gaitz**ala,
 ager diezagula aurpegi argia,
 ezagut dezaten munduan zure **bide**a,
 nazio guztietan Zugandiko sal**ba**mena. ✠
- ✠ Poztu bitez kantari nazi**o**ak,
 zuzentasunez baitituzu gobernat**zen** herriak
 eta gidatzen munduan nazi**o**ak. ✠
- ✠ Ene Jainko, aipa zaitzatela **herri**ek,
 aipa zaitzatela **herri** guztiek.
 Bedeinka gaitzala **jain**koak,
 izan diezaiola begirune mundu **o**soak. ✠

Bigarren irakurgaia (Ga 4, 4-7)

San Paulo Apostoluak Galaziarrei egindako gutunetik

Senideok: Garaia bete zenean, bere Semea bidali zuen Jainkoak, emakumeagandik jaioa, legepeko egina, legepean zirenak askatzera, guk seme-alabatzakoa har genezan. Eta seme-alaba zareten seinaletzat bere Semearen Espiritua bidali du Jainkoak gure bihotzera, «Abba! Aita!» deika ari dena. Beraz, aurrerantzean ez zara esklabo, seme edo alaba baizik, eta seme edo alaba bazara, baita oinordeko ere, Jainkoari esker.

Aleluia (Heb 1, 1-2)





- V. Askotan eta era askotara,
 hitz egin zien antzina Jainkoak profeten bidez gure arbasoei;
 azkenak diren egun hauetan, berriz,
 bere Semearen bidez hitz egin digu. R.

Ebanjelioa (Lk 2, 16-21)

Homiliarako argibideak

0. URTE BERRIA

— Etxeko edo sukaldeko egutegia aldatzea tokatzen zaigu. Berriro martxan gara Urte Berriarekin eta norekin etxeko amarekin baino hobeto? Elizak urteko lehen urratsa Mariaren eskutik hartzen du. Bera da lehen testigu, bera da Elizak beti eta egunero eman behar duen lehen pausoaren erakusle.

— Urte zaharra atzean geratu da eta berriarekin asmo berriak agertzen ditugu. Ziurrenik, aurreko urtean osatu gabeko kontuak berreskuratu nahi ditugu eta okerrak zuzendu.

— Betleemgo estalpera hurbildu diren lehenak lasterka joan diren artzainak dira. Inguruan ibiliko ziren euren ardiak zaintzen eta norbaitek esandakoari kasu eginez, Artzain Ona izango denaren atari apal eta xume hartara hurbildu dira. Aingeruak esandakoa egia den ikustera joan dira, beren begiez egiaztatu nahi dute jasotako albistea.

— Urte Berria haur baten eskutik hasten dugu. Aurreko urteko hainbat asmo eta ametsen porroten ikasbidea kontuan izanik, urtea berriro hasten da, bizitzak aukera berri bat ematen digu. Betleemgo haurtxoak bidea erakutsiko digu.

1. MARIAREN ESKUTIK

— Mariarekin hasten dugu urte berria, berarekin egin nahi dugu ikasleon fede bidea. Estalpeko giroa eta, apaltasun isil horretan Jainkoaren grazia ikusten dutenek, harriturik daude. Baita gu ere! Bizitza miraria da, estalpe ezkutu hartan Jaun Onaren esku maitagarriak adierazten digu Jauna Gurekin dagoela, gizateria honetako historiaren partaide izan nahi duela, gure amets eta sufrimenduekin bat egingo duela. Gurekin egingo duela gizakien bidea.

— Halakoa da Jose eta Mariak bizi izan duten nahaste-borrastea, barne isiltasunari tokia egin behar zaiola, Jaunak guregan egiten dituen modu berezi honi lekua egin behar zaiola. Eta Jaunaren gauzen gune aproposena bihotza izaten da, hortxe baitago gure altxorrik preziatuena. “Mariak, berriz, gogoan jasotzen zituen gauza hauek guztiak, bere bihotzean hausnartuz”.

— Hain bizi gara presaka, batetik bestera nora goazen jakin gabe. Urte Zaharraren gaueko zalapartak talka egiten dute Betleemgo isiltasunarekin. Gure gertakizunek, onak nahiz txarrak, bihotzeko patxada eskatzen dute, bihotzean hausnartzen jakitea.

2. BAKEA ETA ZORIONA

— Urtea hasten denean 365 egun izango ditugu gure barnea eta gure etxea txukuntzeko, asmoak betetzeko bidean jartzeko. Bakea eta zoriona opa dizuegu bide honetan. Ez gaude bakarrik, Jainkoa dugu bidaide.

— Bakea ez da gerrarik eza. Bakea shalom da, Jainkoarekin izan nahi dugun harmonia eta oreka. Senideen arteko konponbidea, bizilagunen arteko lasaitasuna. Bakea, justizia eta maitasuna da Jainkoak dakarkiguna Betleemgo haurtxoarekin.

— Horregatik bakea da dohaina eta eginkizuna. Bakea da Jaunaren eskaintza eta gizaki guztion ahalegina eta eginbeharra. Denon ardura


da bakea amets hutsean geratuko ez den asmo bat izatea. Bakea duintasuna da, injustizien salaketa tinkoa, isildutakoei ahotsa ematea, biktima guztien oroipena egitea, elkartasunaren kultura eragitea.

— Artzainak entzun eta ikusi zutenagatik aintzaka itzuli ziren euren lanetara. Gu itzul gaitezen gure etxeetara Jaunaren bakea eramanez, Jesusen Hartxoaren maitasuna eramanez, Mariak erakusten digunaren bidea elkarrekin eginez. Bakea eta zoriona!

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok: zuzen diezaiogun gure otoitza Jaunari, eta Bere Semearen Ama bitarteko dugula eska dezagun bere errukia gizaki guztientzat:

Erantzuna: ✠. **Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.**



— Fededun guztiek, Mariaren antzera bihotzean gorde eta hausnar dezaten Jainkoaren Semeaz entzuna, gero gartsu hots egiteko. ✠.

— Herrialde eta arraza guztietako gizon eta emakumeak, guztion Aita den Jainko bakarra aitortuz elkarren senide bezala bizi daitezen. ✠.

— Gerra eta injustizia, zapalketa eta gosea nozitzen duten herrian deia Jaunarengana iritsirik ahal bezain laster egiazko bakera eta elkarbizitzara iritsi daitezen. ✠.

— Urte berriaren hasiera Jainkoari eskaintzera hemen bildu garenok, bizi ditzagula bakez urte honen egun guztiak eta osasun eta alaitasunez bukaerara hel gaitezen. ✠.

Betiereko Jainko Jauna entzun gure otoitzak eta bedeinka ezazu hastera goazen urte berri hau: gure eguneroko lanak eman diezagula

eguneroko ogia eta gure bihotzek aurki dezatela zure Hitzarengan asebeteko dituen eta ongiaren bidetik eramango dituen egiazko janaria. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

Oi Jainko, Zuk ematen diezu hasiera asmo on guztiei eta Zuk dituzu burutzen;
Jainkoaren Ama santuaren festaburu honetan eskatzen dizugu, salbamenaren hasiera pozik ospatzen dugunok irits dezagula egun batean salbamen horren betea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Prefazioa: Mariaren Birjinaren I. Prefazioa. *(Meza-liburua: 520. or.)*

Jaunartze-ondorengo otoitza

Jauna, pozik hartu ditugu sakramentu zerutarrak; egizu, Maria beti Birjina dohatsua zure Semearen sortzaile eta Elizaren amatzat aitortzen eta goستن dugunok laguntza izan ditzagula betiko bizia lortzeko. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *Rx*. Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Bedeinkapen guztien iturri den Jainkoak eman diezazuela bere grazia, isur dezala zuen gainera bere bedeinkapen ugaria eta gorde zaitzatela urte guztian bizirik osasuntsu. *Rx*. Amen.

Egin zaitzatela berak egin zaitzatela sinesmenean sendo,
itxaropenean zintzo
eta bizitzako gorabeheretan
maitasunean iraunkor azkeneraino. *℟̥*. Amen.

Urte berri honetan
era ditzala zuen egunak eta lanak bere bakean,
entzun ditzala zuen eskariak nonahi eta beti
eta eraman zaitzatela betiko bizira. *℟̥*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak,  eta Espiritu Santuak. *℟̥*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *℟̥*. Eskerrak Jainkoari.

Urtarrilaren 4an **EGUBERRI ONDORENGO II. IGANDEA**

Agurra

Bizilekua gure artean jarri zuen Jesus Jauna, izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Eguberriko jaien erdian, igandea ospatzera bildu gara mahaiaren inguruan. Jesusen gizon egitea ospatzen ari garen jaietan, Jesus Piztuaren misterioa berritzen dugu Igandea denez Eukaristia ospakizunean.

Gizakiarekin bere jaiotzaz bat egin zuen Jesu Kristo Jaun bera da, gizakien bidea urratu eta sufrimendua eta heriotza igarota guztioi bizi berria eskaintzen diguna.

Damu-otoitza

Jo dezagun betiereko Hitza den Jainkoagana eta eska diezaiogun biderako errukia eta barkamena.

—Jesus Jauna, Mariagandik jaio eta gure senide egin zinen Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, gure ahuleriak ezagutzen eta maitasunez ulertzen dituzun Gizonaren Semea: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gu guztiokin familia bat bera egiten duzun Aitaren Lehen Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira. ✠. Amen.

Aintza

Kanta dezagun aingeru eta artzainekin Eguberri gaueko kantu alaia:
Aintza zeruetan, bakea lurrean!

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa, fededunen argia,
bete ezazu mundu osoa zeure aintzaz,
eta argi distiratsu horrek eraman ditzala herrialde guztiak Zu
ezagutzero. Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jakinduria, Jainkoa bera da Itun Zaharrean. Jainkoak herri bat
aukeratzen du, munduaren erdian bere Maitasunaren irudi eta
eragile izan dadin. Israel da lan horretara deituriko herria: eta gu
Israel berria gara Jesu Kristorengan.

Lehenengo irakurgaia (Si 24, 1-4. 12-16 [gr. 1-2. 8-12])

Siraken liburutik

Jakinduriak bere burua goستن du, bere herriaren erdian aintzaz
betetzen da. Goi-goikoaren batzarrean ahoa irekitzen du eta haren
ahalmenaren aurrean aintzaz betetzen da. Bere herriaren erdian
goratzen dute eta santuen batzar osoan miresten; aukeratuen taldeek
gorespenak ematen dizkiote eta bedeinkatua izango da bedeinkatuen
artean.

Orduan, guztien Egileak agindu zidan, sortu ninduenak etxola
eraiki zidan, eta esan: «Bizi zaitez Jakob en herrian, eta izan bedi
Israel zure ondare».

Hasieran, gizaldiak baino lehenago, sortu ninduen, eta inoiz ere ez dut amairik izango. Etxola santuan, haren aurrean, egin dut zerbitzu, eta horrela Sion mendian finkatu naiz.

Hiri maitean eman dit atsedean eta Jerusalemen dago nire agintaritzatza. Izen handiko herrian bota ditut sustraiak, Jaunaren sailean, haren ondarean.

Erantzun-salmoa (Sal 147, 12-13. 14-15. 19-20)

Hi - tza ha-ra - gi e - gin zai - gu. Gu - re - an Ha -
ren bi - zi - le - ku.

- ℣. Jerusalem, ospa ezazu Jauna,
Sion, goretsi zeure **jain**koa,
zure ateen sarraileak indartu baititu
eta seme-alabak zure baitan **bede**inkatu. ℟.
- ℣. Zure mugetan bakea ezarri du,
garirik onenaz ase zaitu.
Bidaltzen du lurrera bere mezua,
eta haren hitza bizkor eta arin doa. ℟.
- ℣. Bere hitza iragarri dio Jakobena herrriari,
bere erabakiak eta aginduak Israeli.
Beste herriei ez die horrelakorik **egin**,
bere erabakirik ez die jakinarazi. ℟.

Bigarren irakurgaia (Ef 1, 3-6. 15-18)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Bedeinkatua izan bedi Jainkoa, Jesu Kristo gure Jaunaren Aita, zeruan, Kristoren bitartez, Espirituaren era guztietako ondasunez bedeinkatu gaituena! Kristogan aukeratu gintuen, mundua sortu baino lehen, santu eta errugabe izan gaitezen beraren aurrean, maitasunez. Bere onginihiak eraginda aurrez zuen erabakia, Jesu Kristoren bitartez gu seme-alabatzat hartzea, bere Seme maiteagan eskuzabal eman digun dohain zoragarria gorespen-kantu bihur dadin berarentzat.

Jesus Jaunagan duzuen sinestearen eta fededun guztienganako duzuen maitasunaren berri jakinik, etengabe ari naiz zuengatik eskerrak ematen, neure otoitzetan zuetaz oroitzuz. Jesu Kristo gure Jaunaren Jainkoak, aintzaren Aitak, eman diezazuela Espirituaren jakinduria eta goi-argia, bera ezagutzeko. Argi ditzala zuen barruko begiak, jakin dezazuen zer itxarotera dei egin dizuen eta zein aberatsa den fededunentzat oinordekotzan prestatua duen aintza.

Aleluia (Ik. 1 Tm 3, 16)



- V. Aintza Zuri, Kristo,
gizaki bezala agertua,
aintza Zuri, Kristo,
munduan sinetsia. R.

Ebanjelioa (*Jn 1, 1-18 edota, laburrago, Jn 1-5. 9-14*)

Homiliarako argibideak

0. GURE ARTEAN JARRI ZUEN BIZILEKUA

— Gizakion historiak norabide berria eta askatzailea hartu zuen Nazareteko Jesusi esker. Ez du zalaparta handirik atera guregana etortzean. Isilean, apaltasunean etorri da. Halakoa da gurekiko duen errespetua, gure askatasunak Jaunari atea ixteko indarra duela.

— Hain da guretar, gure artean jarri zuela bizilekua. Jarri zezakeen espero zuten tenpluan edota erregeen palazioan. Baina ez, ez da hori Jaunak gure artean egoteko aspalditik hartuta zuen erabakia. Gizakiekin bat, txikien artean xume, pobreen artean xehe.

— Halako garrantzia du fededunon artean Jaunaren jaiotzak, Jaunaren Jaiotza eguneko Joanen ebanjelio bera irakurri dugula. Birritan, ahaztu ez dezagun nor datorren, nola datorkigun eta nola egiten den gure arteko.

— Jaunak guregana etortzean hartutako erabaki askea guretzat eskaintza askatzailea da. Ez da etorri ikusmiran, bere egintzak zertan dabiltzan ikuskatzea. Gure ahuldadea hartu du giza jantzi, gure zalantza eta ametsak hartu ditu Jaunak gurekin oinez ibiltzeko.

— Ez da itxurakeria gure artean bizilekua jartzea, batik bat herriak espero zuen Hitza haragi egin zenean, hurbileko pozak eta negarrak bere gain hartzeko prest badago.

1. HITZA ETA BIZIA

— Eguberrian Jaunak hitza hartzen du, Hitz hori bere sakontasunera eramateko, Hitz hori munduari eskaintzeko, munduak jakin dezan zer nahi duen Jaun Onak beretzat.

— Gizakion arteko elkarrizketa temosoetan azken hitza gure izatea gustatzen zaigu. Zer esanik ez karrasia tartean bada eta elkarren

arteko hizketa oihaneko borroka bat gertatzen denean. Txapelduna gertatzen da gehien oihukatzen duena.

— Ez da hori Jaunaren estiloa, joera, modua eta, are gutxiago, bere izaera. Jaunak Hitza eskainiko digu gure etxean sartzen uzten badugu. Jaunak Salbamen Hitzak jarriko dizkigu mahai gainean gure barnera gonbidatzen badugu.

— Halakoa da Jaunak gurekiko duen errespetua, guk nahi ez dugun tokian ez dela sartzen. Halakoa izan zen Jainko Guztiz Ahaltzuaren errespetua ezin izan zuela Familia Santuak sartu atea ireki ez zitzaion etxeetan: “Bereengana etorri zen, eta bereek ez zuten onartu”, gogorazten digu gaurko ebanjelioak.

2. JAINKOAK AURREA HARTU DIGU

— Jaunarena da gurea artean bizilekua jartzeko erabakia. Ez da gure zain egon, ez du gure kontsentsuaren beharrik izan berea zen etxera etortzeko. Jainkoak aurrea hartu digu bere etorrerarekin.

— Jainkoarena izan zen mundua sortzeko inizatiba, maitasuna erabakia. Guzti honen atzean eta azpian Jainkoak gurekiko duen asmoa da: zoriontasuna. Baina, zoriontasun bideak lehenik norbere buruari uko egitetik pasa behar du. Ez dut lortuko neure zoriona zure zoritxarraren kontura.

— Nazareteko Jesus da Jainkoak gure artean, gure historiaren muinean jarri duen Hitza, egiazko Hitza. Jesusen hitzak Berri On bihurtuko dira eta gure gauaren erdian itsas argi bezala balia dakiguke. Gizakiaren elkartasun gogoa, adiskidetasun eta anaitasunerako ametsa, justiziaren aldarrikapena eta oinarritzko maitasunaren iparrorratza dira Jesusen Hitzak, egunero hots egiten dugun Ebanjelioa. Gaur eta egunero oroitzen dugun haragi egin zen Hitza.

Jainkoaren herriaren otoitza

Dei egigun, senideok, bere jaiotzan munduaren aurrean Salbatzaile eta Erosle agertu den Jaunaren errukiari

Erantzuna: R. **Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.**



— Bere Eliza onginahi handiz zaindu dezan munduko erromesaldian eta bere artzainei lagun diezaien bere eginkizuna betetzen. Egigun otoitz. R.

— Nazio guztietan bakea nagusitu dadin eta herri guztiak egunetik egunera Kristoren jaiotzak mundura ekarri duen senidetasun indarraz jabetu daitezen. Egigun otoitz. R.

— Behartsu eta gaixoek, errefuxiatuek eta gerraren sarraskiak jasaten dituzten guztiek, ezagutu dezaten, egun hauetan, Kristok gizakientzat dakarren bakea eta maitasuna. Egigun otoitz. R.

— Gure kristau-elkarteko familia guztiek, asma dezatela behartsu eta gaixoengan Kristo bera onartzen eta zerbitzatzen. Egigun otoitz. R.

Entzun, Jauna, gure otoitzak eta egizu zure Semearen jaiotza pozik ospatzen dugunok gaitz guztietatik askaturik egiaren ezagutzan aurrera egin dezagula beti. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez.

Oparigaien gaineko otoitza

Sagara itzazu, Jauna, dohain hauek
zure Seme bakarraren jaiotzaz,
honetan erakusten baitiguzu egiaren bidea
eta honetan agintzen zeruetako erreinuko bizia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R. Amen.

Prefazioa: Eguberritako III. Prefazioa. (*Meza-liburua: 475. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Jainko gure Jauna, apalki eskatzen dizugu,
sakramentu honen indarrak garbi gaitzala geure grina txarretatik
eta bete ditzala gure asmo zuzenak.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. R. Amen.

Bedeinkapen Nagusia (*Liburuxka honetan: 20. or.*)

Urtarrilaren 6an **JAUNAREN AGERKUNDEA**

Agurra

Herri guztien argia, edertasuna eta salbamena den
Jesus Jaunaren bakea izan bedi zuekin.

Sarrerako Oharpena

Agerkunde egun honetan, ikusten dugu, Mesiasen salbamena Israel herria gainditu eta mundu osora heltzen dela, denentzat argi izateko. Argi horren arabera bizi nahi dugu senidearen bidera ateraz. Horixe izan daiteke geu ere Jesusentzat dohain preziatu, ukendu gozo eta usain atsegin izateko era bikaina.

Damu-otoitza

Senideok: Bihotz garbi eta apalekoek bakarrik jaso dezakete Eguberritan ospatzen dugun Jainko gizon eginaren misterioa eta berri ona. Aitor ditzagun, bada, apaltasunez ,geure bekatuak.

—Jesus Jauna, diren guztiei izatea eman diezun Aitaren betiereko Hitza : erruki, Jauna.

—Jesus Jauna, mundu honetara etorri eta mundu honek onartu ez zaituen egiazko Argia: Kristo, erruki.

—Jesus Jauna, gizon eginik gure artean bizilekua jarri duzun Jainkoaren Semea: erruki, Jauna.

Erruki dakigula Jainko guztiz ahaltsua, eta, gure bekatuak barkaturik, eraman gaitzala betiko bizira.

Aintza

Betleemgo herrian hasitako poza mundu osoari agertzen zaio gaur. Jaunaren Agerkundera ospatzean kanta dezagun Aintza Zerueta.

Otoitza

(Bezpera-arratsaldeko Meza)

Argitu, Jauna, gure bihotza
zeure handitasunaren argi distiratsuaz,
mundu honetako ilunpetan zehar onik igarotzeko
eta betiko argiaren erreinura iristeko gai izan gaitezen.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

(Eguneko Meza)

Oi Jainko, egun honetan agertu zenien, izarra gidari zela,
zeure Seme bakarra jentil-herriei;
izan zaitez gurekin onbera
eta eraman gaitzazu sinesmenez ezagutzen zaitugunok
zeure aintzaren ederra bete-betean gozatzera.
Zure Seme Jesu kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *℟*. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Poesiaz eta hitz ederrez, Jerusalem berria nolakoa izango den agertzen digu Isaiasen irakurgaiak. Jerusalem berri hori gizadi osora zabaltzen da: Jaunaren argitan iluntasunaren kateak hautsirik berritua izango baita dena eta askatasunez beteak gizon-emakume guztiak.

Lehenengo irakurgaia (Is 60, 1-6)

Isaias Profetaren liburutik

Jaiki zaitez, Jerusalem, argitu, badator-eta zure argia; zure gainean ageri da Jaunaren aintza. Begira, ilunpeak estalia du lurra, gau beltzak herriak; zure gainean, ordea, Jauna agertuko da, haren aintza zure gainean azalduko.

Zure argira etorriko dira herriak, zure egunsenti-distirara erregeak. Jaso itzazu begiak zeure ingurura eta ikusi: guztiak elkartu eta zugana datoz, urrutitik datoz zure semeak, besoetan dakartzate zure alabak.

Hori ikustean, distiratsu jarriko zara, bihotza zirraraz eta zabaldurik duzula, itsasoko aberastasunak zugana etorriko baitira eta nazioen ondasunak zuri ekarriko dizkizute. Gamelu-taldeek estaliko zaituzte, Madiango eta Efako dromedarioek. Sabatik datoz guztiak, urrea eta intsentsua dakartzatela, eta Jaunari gora eta gora diotsotela.

Erantzun-salmoa (Sal 72 [71], 1-2. 7-8. 10-11. 12-13)



I - ku - si du - te lur mu - ga de - nek gu - re Jain - ko -

a - gan - di - ko ga - rai - pe - na.

- ✠. Ene Jainko, emaiizu zeure zuzentasuna erregeari,
zeure justizia erregearen semeari.
Goberna beza zure herria justiziaz,
zure dohakabeak zuzenbidez. R̃.
- ✠. Haren egunetan, lora bedi justizia,
ugaldu bakea, ilargia itzali arte.
Izan bedi nagusi itsasotik itsasoraino,
lurraren bazter batetik besteraino. R̃.
- ✠. Ekar biezazkiote opariak ‘Tarsisko eta uharteetako erregeek,
ordaindu zergak Sabako eta Sebako erregeek.
Agurtu bezate ahuspezturik errege guztiek,
izan bitza menpeko nazio guztiak. R̃.

℣. Berak libratuko du oihuka ari den behartsua,
nork lagundurik ez duen dohakabea.
Cupida izango die gizagaixo eta behartsuei,
bizia salbatuko pobreei. ℟.

Bigarren irakurgaia (Ef 3, 2-3a. 5-6)

San Paulo Apostoluak Efesoarrei egindako gutunetik

Senideok: Jakingo duzue, noski, Jainkoak bere onginahian zuen onerako eman didan eginkizuna, goi-agerpenez jakinarazi baitit bere asmo ezkutua; salbamen-asmo hau ez zitzaien iraganeko gizaldiei jakinarazi; orain, ordea, Espirituaren bidez bere apostolu santuei eta profetei agertu die Jainkoak. Eta haxe da Jainkoaren asmo ezkutua: Berri Onari esker, jentilak Kristo Jesusekin oinordekide direla, harekin gorputz bat bera osatzen dutela eta agintzari beraren partaide direla.

Aleluia (Mt 2, 2)



℣. Haren izarra ikusi dugu sortaldean
eta hura gurtzera gatoz. ℟.

Ebanjelioa (Mt 2, 1-12)

Ebanjelio ondoren: 2026. urteko ospakizunen berri ematea

Ebanjelioaren ondoren, eman daiteke 2026. urtean zehar izango diren liturgi-ospakizunen berri, Meza-liburuaren 1304. orrialdean agertzen den moduan.

Homiliarako argibideak

0. JESUS DENONTZAT ETORRI DA

— Jaunaren Agerkundeko mezuaren muina Jesus denontzat etorri dela adieraztea da. Horren adierazgarri nagusiena gaurko Magoen bisita da. Sortaldetik Jerusalemara galdezka etorri dira juduen erregea non den jakin nahian.

— Judako Betleemen dagoen haurtxoa erregea da. Baina Jesus denontzat datorkigu, ez du inolako mugarik jarri. Jesu Kristo guretzat emana da. Eta gu horretan, hangoa nahiz hurbilekoa izan, denok sartzen gara.

— Errege Magoen festa Betleemgo estalpean jaio den erregearen bisitaren festa da eta hor agertzen digu datorrena, gure artean dagoen Jesusek ez duela inongo baldintzarik jarriko enda edo arrazei. Horrexegatik irudikatzen ditugu hiru magoak ebanjeliotik at tradizioak jarritako hiru endatan: bizar zuri, bizar gorri eta beltz.

— Bizi ditugun garaia hauek handik eta hemendik etorritako gizakioz osatutako kultura egiten dugu. Etorkizuna ez da kolore bakarreko, zenbaitek euren politika edota oraindik erlijio ikuspegi itsutu batean oinarrituta sinesten duten moduan. Gizadiaren etorkizuna, oraina ez esateagatik, jatorri-nahasketa handiago baterantz doa, mestizajea izeneko prozesu baterantz, migrazioak eta globalizazioak bultzatuta.

1. IZARRA IKUSI DUGU

— Zeruko izarrak ikusteko gaua iritsi behar du eta zerura begira jarri. Izarra ikusteko bila jarri behar da lehenik. Zaila da Jaunarekin topo egitea bere bila ez bazabiltza.

— Magoek zerbaiten bila ari ziren, ziurrenik, eta ustekabeen norbaitek topo egin zuten, guretzat haragi egin zen Hitza.

— Sortaldean ikusi zuten izarrak erakutsi zien bidea eta, konfiantza osoz, nora eramango zituen zehatz mehatz jakin gabe, haurra zegoen lekuraino bideratu zituen.

— Gizaki garaikideak ez du zerura begiratzeko ohiturarik, ez du izarrei begira egoteko astirik hartzen. Eta izarren distira xumea ikusteko gaueko iluntasunaren araua onartzeko prest egon behar dugu. Gizartea ohargabe zeinbaitetan iluntasunean bizi da. Izarrak ikusteko, zeruko zeinuak antzemateko burua eta begiak altxatu behar ditugu: “jaso itzazu begia zeure ingurura eta ikusi” -esan digu Isaias profetak.

2. GURTZERA GATOZ

— Ez da magoen bisita kortesiazko bisita Betleemgo estalpean. Erregeen erregea gurtzera etorri dira, salbamena dakarkigun Jauna adoratzerara.

— Aspaldi zioen apaiz batek Jaunaren aurrean bakarrik makurtzen zela. Mundu honetako botereek gustuko izaten dute mendekotzat hartzen dituztenen gurtza. Horrela pertsona pertsonen esklabu egiten da, askatasunari uko egiten dio eta besteari sinestarazten dio ni baino gehiago dela.


— Denok berdinak gara Jaunaren aurrean. Are gehiago, Jaunak aurea hartu digu eta berak emango du aurrerago zerbitzariaren lehen pausoa gogoratuz: “lehena izan nahi duena izan bedi denetan azkena eta denen zerbitzaria”. Ez dira urte asko igaroko Belengo haurtxoak, Nazareteko Jesus deritzogunak, giza lidergoa hankaz gora jarriko duena, zerbitzariaren dinamika betirako txertatuz bere jarraitzaileongan.

— Hau ahaztu bazaigu edota, okerrago, gure aurrean besteak makurtzea gustuko badugu, ez gara Jaunaren eskakizunaren arrastoan bizi.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, egin diezaiogun otoitz Jainkoari, egun honetan agertu baitie nazio guztiei Bere indarra, herri guztiei salbamena eta guri Bere aintzaren argi distiratsua:

Erantzuna: ✠. **Erakuts guri, Jauna, zure bihotza ona.**



- Elizaren alde, Kristorengandik datorren argiarekin gizaki guztiak ilunaldietatik aska ditzan, guztiak gogoberotuz Ebanjelioaren indarra gailendu dadin munduko ezin guztien artean. ✠.
- Herrialde ezberdinetan jaio berriak diren kristau-elkarteen alde, bere gaztetasuna eta sendotasuna indar-emaile gerta dadin Eliza osoarentzat. ✠.
- Ebanjelioaren argia ezagutu ez duten herrien alde, eta baita Kristo ezagutu arren Bere bidetik aldendu diren guztien alde; denak iritsi daitezen Kristo Jauna dela aitortzera eta egiazko Jainko bezala gurtzera. ✠.
- Kristoren benetako argia ezagutu dugunok, egiazko fedean sendoturik gero eta leialago bizi gaitezen Ebanjelioko irakaspenetan. ✠.

Entzun gure otoitzak, Jainko ahalguztidun eta betierekoa, eta egizu zure Semea ezagutu eta Herri guztien Errege eta Jaun gurtu dugunok, argiaren seme-alaba bezala bizirik Kristoren distira helaraz dezagula gizarteko eta munduko bazter guztietara. Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. ✠. Amen.

Oparigaien gaineko otoitza

(Bezpera-arratsaldeko Meza)

Onartu, Jauna, zure Seme bakarraren Agerkundera
eta lehenengo jentilak erakarri izana ospatzeko
eskaintzen dizkizugun oparigaiak;
egizu, izan daitezela zure gorespenerako
eta betiko gure salbamenerako.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx.* Amen.

(Eguneko Meza)

Begira, Jauna, begi onez zeure Elizaren dohain hauei;
ez dizugu horietan urre, intsentsu eta mirrarik eskaintzen,
baizik horiek adierazten duten Jesu Kristo gure Jauna,
opari egingo dena eta janari emango zaiguna.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *Rx.* Amen.

Eukaristiaren liturgiari oharpena

Magoen egun honetan, katekista guztien eguna ere bada. Gure
parrokietan beraiek dira Kristo “agertzen” dutenak, ematen duten
heziketaren eta testigantzaaren bidez. Une honetan, eman
diezazkiogun eskerrak Jainkoari katekista guztiengatik.

Prefazioa: Jaunaren Agerkunderako Prefazioa. *(Meza-liburua: 476. or.)*

Jaunartze-ondorengo otoitza

(Bezpera-arratsaldeko Meza)

Janari santu honekin biziberriturik,
otoitz egiten dizugu, Jaun errukitsua,
zure zuzentasun-izarrak argitu ditzala beti gure gogo-bihotzak
eta Zu aitortzea izan dadila gure oparia.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *Rx.* Amen.

(Eguneko Meza)

Jauna, izan dezagula lagun zure argia nonahi eta beti,
ospatu dugun misterio hau fede garbiz sakon dezagun
eta maitasun gartsuz onartu.

Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̥*. Amen.

Bedeinkapen Nagusia

Jauna zuekin. *R̥*. Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:)

Ilunpetatik bere argi miragarria deitu zaituzten Jainkoak
isur dezala zuen gainera bere bedeinkapena
eta sendo zaitzatela sinesmenean,
itxaropenean eta goi-maitasunean. *R̥*. Amen.

Gaurko egunez munduari
ilunpeetan argi distiratsu agertu zitzaion Kristok
egin zaitzatela bere jarraitzaile
eta zuen anai-arrebentzat argi. *R̥*. Amen.

Magoek, izarra gidari, Kristoren bila ibili ondoren,
poz handiz aurkitu zuten bezala,
eman diezazuela zuei ere Jainkoak,
mundu honetako ibilaldiaren ondoren,
argitik argi den Kristogana iristea. *R̥*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. *R̥*. Amen.

Zoazte Jaunaren bakean. *R̥*. Eskerrak Jainkoari.

Urtarrilaren 11n

JAUNAREN BATAIOA

Agurra

Aitaren Seme maitea den Jesus Jaunaren grazia eta bakea zuekin.

Sarrerako Oharpena

Jaunaren Bataioaren jaia ospatzen dugu gaur. Jesus da Jainkoaren Zerbitzaria, Espirituak Gantzututako Mesias, Aitak Semetzat aitortu zuena, herri guztien salbamenaren Berri Ona iragartzera bidalia.

Ura bedeinkatzeko eta ur bedeinkatuz zirtatzeko ohikunea

Senide maiteok: egin diezaiogun otoitz Jainko gure Jaunari, geure Bataioaren oroipenez geure burua zirtatzeko erabiliko dugun ur hau bedeinka dezan. Ur honek berrizta gaitzala, hartu dugun Espirituari beti leial izan gakizkion.

Isilune labur baten ondoren, eskuak bildurik jarraituko du:

Jainko ahalguztidun betierekoa, ura biziaren iturri eta sorburu eginik, gizon-emakumeen arima garbitzeko indarra ere eman diozu, guk ur honetan betiko biziaren dohaina har dezagun; bedeinka ✠ ezazu ur hau, Jauna, zurea den egun honetan indar gaitzan.

Ur honen bidez berri ezazu gugan zeure graziaren iturri bizia, zaindu gaitzazu gorputz-arimetako gaitz guztietatik, Zugana bihotz garbiz hurbil gaitezen, eta zure salbamina irits dezagun. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *℟*. Amen.

(Herria zirtatzen du, Bataio-kantu egoki bat kantatzen den bitartean)

Jainko ahalguztidunak garbi gaitzala bekatutik eta, Eukaristia honen bidez, bere erreinuko mahaian jartzeko gai egin gaitzala. *℟*. Amen.

Ÿ.Erruki, Jauna. Ŗ. Erruki, Jauna.

Ÿ.Kristo, erruki. Ŗ. Kristo, erruki.

Ÿ.Erruki, Jauna. Ŗ. Erruki, Jauna.

Aintza

Gora dezagun Jainkoa bihotzez, Aintza kantatuz.

Otoitza

Jainko ahalguztidun betierekoa,
Kristo Jordan ibaiko uretan bataiatua izan zenean
goraki aitortu zenuen, Espiritu Santua haren gainera bidaliz,
hura zela zure Seme maitea:
emaiezu, uretik eta Espiritu Santuagandik jaio diren
zure seme-alabatzakoei, zure maitasunean irautea beti.
Zure Seme Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez,
Zurekin eta Espiritu Santurekin batean
Jainko eta errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. Ŗ. Amen.

Edota:

Oi Jainko, zure Semea haragizko gure izaeran agertu da;
egizu, kanpotik gure antzeko aitortzen dugun hark
eraberri gaitzala barnetik bere antzeko eginez.
Zurekin eta Espiritu Santuarekin batean
Jainko eta errege bizi baita, gizaldi eta gizaldietan. Ŗ. Amen.

Hitzaren liturgiari oharpena

Jaunaren promesak betetzen ari dira: Jaunaren Bidaliak bere
bataiokoan hasten duen misioaren hasieran agertuko zaigu gaur hori.
Kristo da aukeratua, Kristo zerbitzari apala, gizon-emakume guztiei
Jainkoaren seme-alabatza eta askatasuna ematen dizkiguna.

Lehenengo irakurgaia (Is 42, 1-4. 6-7)

Isaias Profetaren liburutik

Honela mintzo da Jauna: «Hona nire zerbitzaria, Nik eusten diodana, nire aukeratua, atsegin dudana. Honengan ipini dut neure espiritua; zuzenbidea ekarriko die herriei. Ez du oihu egingo, ez ahotsa goratuko, ez du kaleetan entzunaraziko bere mintzoa. Kanabera pitzatua ez du hautsiko, doi-doi piztua dagoen argi-metxa ez du itzaliko. Zuzenbidea ekarriko du leialki; ez du etsiko, ez da hautsiko, zuzenbidea lurrean ezarri arte; uharteak haren irakaspenaren zain daude.

Nik, Jaun honek, salbamen-egintzarako dei egin dizut, eta eskutik heldu; Nik eratu zaitut eta izendatu herriarentzat itun eta nazioentzat argi izateko, itsuen begiak zabal ditzazun, giltzapetuak espetxetik askatu eta ilunpean bizi direnak kartzelatik atera ditzazun».

Erantzun-salmoa (Sal 29 [28], 1a eta 2. 3ac-4. 3b eta 9c-10)



℣. Eman Jaunari, zeruko **izakiok**,
eman Jaunari bere izenaren **ospea**.
Ahuspeztu Jaunaren **aurrean**,
bera santutasunez **agertzean**. ℟.

℣. Jaunaren ahotsa ur **gainean**,
Jauna ur handien **gainean**.
Jaunaren ahotsa **indartsu**,
Jaunaren ahotsa **dir**daitsu. ℟.

℣. Jainko ospetsuak trumoia jo du,
haren tenpluan denek oihuka diote: Gora!
Uholdearen gainetik dago Jauna eseria,
tronuan eseri da Jauna betiko errege. ℟.

Bigarren irakurgaia (Eg 10, 34-38)

Apostoluen Eginak liburutik

Egun haietan, honela mintzatu zen Pedro: «Orain jabetzen naiz benetan Jainkoak ez duela bereizkeriarik egiten, baizik eta onartzen duela begirune diona eta beraren nahia egiten duena, edozein herritakoa dela ere.

Hark bere hitza bidali zien israeldarrei, guztien Jauna den Jesu Kristoren bidez bakearen Berri Ona iragarritz. Badakizue zer gertatu zen, Galileatik hasi eta Judea osoan, Joanek hots egin zuen bataioaren ondoren: Nazaretoko Jesusena, alegia: Jainkoak Espiritu Santuaren indarraz gantzutu zuen, eta hark on egiten eta deabruak hartutako guztiak sendatzen igaro zuen bizitza, Jainkoa berekin baitzuen».

Aleluia (Ik. Mk 9, 7)



℣. Zabaldu zen zerua eta Aitaren ahotsa **ent**zun zen:
«Hauxe da nire Seme maitea. Entzu**io**zue». ℟.

Ebanjelioa (Mt 3, 13-17)

Homiliarako argibideak

1. Antzinatik, Epifania, hau da, magoei agertzea, Jesusen bataioko Aitaren ahotsa, atsegin ematen dion Seme maitea aldarrikatzen duena, eta, azkenik, Galileako Kanaango ura ardo bihurtzea batu ditu Elizak Jaunaren adierazpen gisa, Jesusek bere aintza adierazi eta bere jarraitzailek Harengan sinetsi zutenekoa. Gaur egun, hiru gertaera horien oroitzapenak ezer gutxi esaten die kristauei, ezer ez, akaso. Jaunaren beste adierazpen batzuk aurkitzen jakin behar da, gaurko bizitzarekin lotuagoak daudenak, eta hori lortzeko bidea jakin behar da.

2. Jesusen bataioren jaiak Jesusen presentzia eta ekintza ezagutzeko eta besteei jakinarazi ahal izateko bidea erakusten digu. Lehenik eta behin, entzun egin behar da eta, aldi berean, gure bataioaren egunean jaso genuen eta gure artean Jainkoaren seme-alaba eta anai-arreba bihurtu gintuen Espirituaz jabetu behar da. Kristori entzuteak bere irakaspenetan, bere jokaeran, gudan duen presentzian sartzea esan nahi du. Berak lagunduko digu besteetan aurkitzen, baita ezagutzen ez dutenetan ere. Fedean hazten lagunduko digu, maitasunaren bidez. Bestalde, isil-isilik, Espiritu Santuak gidatzen du benetan gure bizitza, Jesusena gidatu zuen bezala, eta Bera presente egiten den eta interpelatzen digun garaien zeinuak interpretatzen jakitera eramaten gaitu.

3. Maitasunaren aginduaren bidez, (agindu) hori beteta bera gaurko munduan argi eta modu ulergarrian agertzen dela ikusarazten digu Kristok. Horrela jakingo dute nire jarraitzaileak zaretela: elkar maitatuta, nik maite izan zaituztedan bezala. Zatiketaz, gerraz, gorrotoz eta injustiziaz betetako mundu batean, anaitasunean agertzen da Jesus, hori ez baita gure ahaleginaren emaitza bakarrik. Aitaren dohaina da, Kristoren anai-arreba ez ezik, gure artean ere anai-arreba egiten gaituena. Maitasunean bat egitea da Espirituaren lehen fruitua. Mendekostean jaisten denean, fededunen komunitatea sortzen da. Jesusen bataioaren jaiak anaitasuna eraikitzeko deia da, Kristo

berpiztuaren presentzia eta indarra modu argi eta agerikoan erakusten duena.

Jainkoaren herriaren otoitza

Senideok, dei egin diezaiogun bataioa hartuz gizakia berritu eta gure bataioa santutu nahi izan zuen Salbatzaileari:

Erantzuna: **℟. Entzun Zuk, Kristo, herri honen oihua.**



En - tzun, Zuk Kris - to, he-rri ho - nen oi-hu - a.

- Kristok, Jainkoaren zerbitzariak, Aitaren maiteak maitasunez begira diezaien bataioa eta sendotza hartzeko prestatzen direnei, edo beraien haurrak prestatzen dituztenei. Egigun otoit. **℟.**
- Kristok, herri guztiak zuzentzeko Jainkoak Aukeratuak, Jainkoa bihotz zintzoz bilatzen dutenak argi ditzan, Aitaren ahotsa entzunarazi diezaien eta bataioko uretara zuzen ditzan. Egigun otoit. **℟.**
- Kristok, Espirituak Gantzutuak, Aitaren asmoarekin leial izan zenak, eman diezaia bere ametsak zailtasunez beteak ikusten dituzten etorkinei eta beren herritik urruti bizi direnei, ez etsitzeko adorea. Egigun otoit. **℟.**
- Kristok, Seme maiteak, Jordanen bataioa hartu nahi izan zuenak, lagun diezagula bataioaren handitasuna eskertzen, Jainkoak gizakioi digun maitasunaren dohain denez. Egigun otoit. **℟.**

Jainko errukitsua zure ahotsa entzunarazten duzu bataioko urtean eta sendotzako gantzutzean, entzun gure otoitzak eta emaiezu bataiatu guztiei bataioko hitzak leial betez fedearen testigu ausart izatea. Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. **℟. Amen.**

Oparigaien gaineko otoitza

Onartu, Jauna,
zeure Seme maitearen agerraldia ospatzen dugun
egun honetan ekarri ditugun dohainak;
bihur daitezela munduko bekatua kendu duen
zure Seme errukitsuaren sakrifizio.
Errege bizi baita gizaldi eta gizaldietan. *R̥*. Amen.

Prefazioa: Jaunaren Bataiokoa. (*Meza-liburua: 146. or.*)

Jaunartze ondorengo otoitza

Jaun errukitsua,
dohain santu hauez aserik apalik dei egiten dizugu:
egin gaitzazu zeure Semearen hitzaren entzule zintzo,
izenez eta izatez zure seme-alaba izan gaitezen.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̥*. Amen.

Herriaren gaineko otoitza eta bedeinkapena

Jauna zuekin. *R̥*. Eta zure espirituarekin.

Makurtu burua Jaunaren bedeinkapena hartzeko.

(*Eskuak herriaren gain zabalik bedeinkapena esango du:*)

Entzun, Jauna, zeure familia honen otoitzak
eta eman zeure kemena apalik eskean ari zaizunari,
beharrezko baliabideez indarturik,
zure izenaren aitormenean iraun dezan.
Jesu Kristo gure Jaunaren bitartez. *R̥*. Amen.

Bedeinka zaitzatela Jainko ahalguztidunak:
Aitak, eta Semeak, ✠ eta Espiritu Santuak. *R̥*. Amen.

